



**GASTEIZKO
UDALAREN
IV. GAZTE
PLANA**



Sormena



ERRONKAK

Esku hartzeko lerro honetako erronka nagusiak aurreko Gazte Planean zehaztutakoari jarraitzen dio:

1. Gazteak, hiriko eragile aktibo eta sortzaileak

HELBURUAK

Epe honetarako, honako helburu hauek ezarri dira:

- 1** Gazteek askotariko **aukerak eta espazioak izatea** beren esku (birtualak, fisikoak...), sormenarekin lotutako honako kezka hauek landu ditzaten:
 - Elkartzeko, hausnartzeko eta elkarrekin lantzeko (sortzeko).
 - Sortzaile diren neurrian, sortzeko eta esparru horretan hezteko.
 - Bere sorkuntza-lanekin disfrutatzeko.
- 2** Pertsona gazte sortzaileak **protagonista** izatea eta gizartean presentzia izatea, eragile aktibo diren neurrian, hiriari egiten dioten ekarpen sortzailea agerian jarritz.
- 3** Gazteei **lagun egitea** eta aholkua eta baimena ematea beren sormen-prozesuan.
- 4** Gasteizko Udaleko zerbitzuei, **programei eta kultura-baliabideei** buruzko **informazioa** helaraztea gazteei.

Gazte Plan berri honetan, sormenaren lerroa bereiz landu da, esparru horrek gure hirian betetzen duen garrantziaren adierazgarri. Askotariko diziplina eta interesak biltzen ditu sormenak, eta gazteen kolektiboaren heterogeneotasuna eta aniztasuna bermatzen dira horrela.

Sormenaren esparruan gazteek hiriari egin diezazkioketen ekarpen ikaragarriak bildu nahi ditu atal honek, eta, aldi berean, gazteak agerian jarri eta balioetsi nahi ditu. Beste faktore garrantzitsu bat espazio publikoarekin dago lotuta, espazio publikoa sormenarekin zerikusia duen oro hedatzeko, sortzeko eta agerian jartzeko erabiltzearekin.

Gazteak dira berez arriskuaren inguruan mugitzeko, esperimintatzeko eta berrikuntza eta horrelako gaitasunak lantzeko prestutasun handiena duten pertsonak, eta etorkizunean eta hiriaren iraunkortasun sozialean inbertitzea da sormena.

UDALAREN JARDUKETAK:

- Sormenaren esparruan lanean jarraitzen du **Gazteria Zerbitzuak, Sortzen** programaren bidez. Hainbat diziplinatatik (bideoa eta argazkigintza, arte plastikoak, ipuin eta kontakizun laburrak, film laburrak, musika) sormenaren esparruan lan egiteko aukera ematen duten ekintza eta lehiaketa guztiak biltzen ditu programa horrek. Programaren ezaugarri nagusietako bat gazteari ematen zaion laguntza da, sormena babesteko asmoz esparru guztietan garatzen den tutoretza profesionala, zehazki.

Gazteen ideiak biltzen dituen **Haziak** lehiaketan, aurkeztutako ideien % 74 kulturaren esparruko sormenarekin lotuta daude (esku-hartze artistikoak, graffitiak, film laburrak, sormenarekin lotutako lantegiak...)

Gazte Factory programaren bidez, beren intereseko jarduerak (dantza hiritarra, capoeira) sustatu eta lantzeko espazioak behar dituzten kolektiboek laguntza ematen jarraitu da.

- **Gazte Sortzaileak** programa du Euskera Zerbitzuak; 17 urtetik 35era bitarteko gazteei zuzentzen zaien programa horren helburua sormena bultzatzea da, euskararekin lotuta, betiere.
- **Kultura Sailaren** zenbait helburu bat datoz Gazte Plan honetan proposatzen diren zenbaitekin: “Sorkuntzarako, ekoizpenerako, trukerako eta elkarren arteko harremanetarako espazioak bilatzea”; “Prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena, hedapena eta parte-hartzea sustatzea eta bultzatzea”, eta “Kulturako sektore guztiei laguntzea eta horien artean sinergiak sortzea”. Kultura Zerbitzuko unitateen barneko programa ugari honako helburu hauek lortzea dute xede: tokiko ekimenak txertatzea jaietan, sariketetan eta lehiaketetan; hainbat arte-diziplinan, ikastaro plastikoak garatzea, jarduera artistikoetarako ikasgela irekiak antolatzea, antzerki-proposamenetan tokiko sorkuntza-lanei babesa ematea...

ERRONKAK

Gazteak, hiriko eragile aktibo eta sortzaileak

SORMENA

HELBURUAK

EKINTZAK

1 Gazteek askotariko **aukerak eta espazioak izatea** beren esku (birtualak, fisikoak...), sormenarekin lotutako beren kezkek gara ditzaten, elkarrekin bat egin dezaten, sor dezaten eta beren sorkuntza-lanak zabal ditzaten

L.4-1 ESPAZIOAK BERRERABILTZEA

L.4-8 ZINELEKU

2 Pertsona gazte sortzaileak **protagonista** izatea eta gizartean presentzia izatea, eragile aktibo diren neurrian, hiriari egiten dioten ekarpen sortzailea **agerian jarritz**

L.4-2 GAZTEEN ARTEKO SORMEN-TOPAKETAK ETA LEHIAKETAK

L.4-3 945. BURBUILA: PILAR AUZOAREN BERRONERATZE ARTISTIKOA

3 Gazteei **lagun egitea** eta aholkua eta **tutoretza** eskaintzea beren sormen-prozesuan

L.4-4 VGAZTEA BEKAK TUTORETZAREKIN

L.4-5 AHOLKULARITZA KUDEAKETA KULTURALEAN

4 Gasteizko Udaleko zerbitzuei, **kultura-programei eta kultura-baliabideei** buruzko **informazioa** helaraztea gazteei

L.4-6 E-LIBURUTEGIAREN ZABALKUNDEA

L.4-7 LITERATURAKO GAZTE BOOKTUBERREN EDOTA BLOGLARIEN TOPAKETA

L.4-1 EKINTZA

Espazioak berrerabiltzea

Udal-espazio bat berriro erabiltzea adierazten du ekintza honek, eta kezka kulturei zuzendu dakiok ez espazio hori. Hainbat diziplina garatzeko aukera ematen duen toki bat izango da, eta, toki horretan, bat egingo dute proiektuek eta pertsona sortzaileek.

Gutxieneko baldintza batzuk bete behar ditu espazioak, neurriei, ordutegiaren erabilerari, balioaniztasunari eta abarri dagokienez.

Gizarte-etxeetako espazioetarako sarbideari buruzko araudia eta gazteek espazio horiek erabiltzeko dituzten benetako aukerak aztertuko dira.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Gizarte-etxeen zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

L.4-2 EKINTZA

Gazteen arteko Sormen-Topaketak eta lehiaketak

Gazteen sormenerako denbora-tarteak zehaztuko dira (hamabostaldiak, hilabeteak): era guztietako esparruak landuko dira, artistiko eta klasikoenak (dantza, argazkigintza, antzerkia, musika...) nahiz berritzaileenak. Espazio horrek aukera eman behar du sortzeko, ikasteko eta partekatzeko, eta ateak irekita izango ditu atzerriko artistentzat ere.

Gazte Planaren hasieratik datorren prozesua da, lantzen den guztiak bat egin dezan saioan, aldian-aldian errepikatzen asmoz (bizpahiru urtean behin).

Kulturaren eta sormenaren esparruetako hiriko eragile guztiak bilduko ditu prozesuak (pribatuak eta publikoak, erakundeak eta norbanakoak, hiriko ekitaldiak...)

Espazio ireki bat eratuko da, lantegiak, profesionalen hitzaldiak edo askotariko jarduerak eskaintzeko edota kalean jarduteko...

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
1.000 €	3.000 €	12.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
1.000 €	3.000 €	12.000 €

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Udal-sailak



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L.4-3 EKINTZA

945. Burbuila: pilar auzoaren berroneratze artistikoa

Arte hiritarraren bidez auzo bat (Pilar) berroneratzeko komunitateko proposamen bat da **945. burbuila** egitasmoa. Artea, gizartea eraldatzeko bidetzat hartuta.

Horretarako, adierazpide gisa eta ingurua hobetzeko bide gisa graffitia erabiltzen duten Gasteizko hainbat artista gazteren eta kolektiboren laguntza izango da. Ahal den neurrian, auzoko bizilagunak, ikastetxeak, parrokia... sartuko dira sormen-prozesuetan.

Auzo bat estetikoki eta gizartearen ikuspegitik hobetzea da xedea, auzoa graffitiaren, suspertzearen eta komunitatearen parte-hartzearen erreferente bihurtuz.

Arduraduna: Pilarko oinarrizko gizarte-zerbitzua

2017		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
2.500 €		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
2.500 €		

L.4-4 EKINTZA

Vgaztea Bekak tutoretzarekin

2 beka urtero, sormen-prozesu baterako; % 75eko ekarpena proposamena egin duen pertsonarentzat (pertsonentzat) izango da, eta % 25, sormen-prozesuan lagun egingo dion profesional batentzat.

Kontuan hartu behar dira diziplina artistikoak.

Zenbait sormen-esparru nahasten dituzten proiektuetarako beka ere aintzat hartu beharrekoak dira, horrela, sortzaile berriei aukerak eman ahal izateko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
5.000 €	5.000 €	5.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
5.000 €	5.000 €	5.000 €

L.4-5 EKINTZA

Aholkularitza Kudeaketa Kulturallean

Kultura-gaietan aholkularitza zerbitzua eskainiko da, eta edozein motatako lanak sartzen dira hor: kudeaketa, marketina, zabalkundea, babes, espazioak...

Hasiera batean posta elektronikoa bidez egingo liratekeen kontsulta horiei erantzuteko, hainbat arlotako kideekin osatutako talde bat beharko litzateke, askotariko gaiak jorratu ahal izateko.

Beste pertsona edo artista batzuekin batera aritzeko edo iritziak trukatzeko aukera emango lukeen baliabide bat eratzeko aukera ere aztertuko da.

Aholkularitzari buruzko lantegiak eta hitzaldiak.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
2.500 €	2.500 €	2.500 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
2.500 €	2.500 €	2.500 €

L.4-6 EKINTZA

e-liburutegiaren Zabalkundea

Flyer eta eranskailuak egingo dira (QR bidez), mailegu digitaleko plataformaren berri emateko eta zabaltzeko.

Arduraduna: Gizarte-etxeetako kultura-jardueren unitatea

Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

2017		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
6.000 €		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
6.000 €		

L.4-7 EKINTZA

Literaturako gazte booktuberren edota bloglarien topaketa

Liburuekiko grina partekatzen duten irakurle gazteen topaketa Youtubeko kanal batean.
Iritzien sortzaileak dira, horrez gain, interesa duten beste batzuei beren esperientzien berri emateko komunitateak eraikitzen dituztenak.

Arduraduna: Gizarte-etxeetako kultura-jardueren unitatea
Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		12.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

L.4-8 EKINTZA

Zineleku

Ikus-entzunezkoen esparruko prestakuntza, ekoizpena eta erakusketa.
Komunitatea oinarri hartuta ikus-entzunezkoen esparruko gazte sortzaileei euskaraz diziplinarteko prestakuntza bat eskaintzea du xede. Prestakuntzaren eta sormenaren esparruko bizikidetzeta-esperientzia, 18 urtetik 25era bitarteko gazteei zuzendua.
Parte hartzen duten pertsonak elkarrekin egongo dira 8-10 egunez, eta zinema-lantegietara, profesional zinematografikoen eta beste diziplina artistiko batzuetako jendearen irakaspen-hitzaldietara eta abarretara jo ahal izango dute; gainera, proiektzio, performance eta kontzertuetan parte hartu ahal izango dute.

Arduraduna: Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundea

2017		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
12.000 €		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
15.000 €		
AURREKONTUA GUZTIRA		
27.000 €		